

elkar

UDABERRIA 2017

47. ZENBAKIA

www.elkar.eus

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR



MARTXOAREN
7TIK
APIRILAREN
8RA

2017

DRAG.E (LOGELA MULTIMEDIA)**MARTXOAK 19**AZKUNA ZENTROA **12:30**

Logela Multimedia (teatro familiarra)
Sarrera: 8 € (helduak) - 5 € (haurrek, 16 urtetik
behera) / Lorazaina: 5 € (helduak) - 3 € (haurrek)

Logela Multimediako kideak mugarik gabeko sortzaileak dira. Honetan, ikuszkizun multimedia berria dakarkigu, antzerkia, dantza, musika, bideoa eta robotika lantzen dutelarik. Etorkizuna gaur, aktore nagusiak benetako robotak baitira.

OSKARA PLAZARA**MARTXOAK 22**

AZKUNA ZENTROA

19:30

Kukai konpainia
Sarrera: 6 € / Lorazaina: 4 €

Kukairen "Oskara" sormen lanari buruz Arena Comunicación-ek ("Normadak TX", "Pura Vida") burutu duen dokumentalaren estreinua. Zine irudikekin batera, zuzen-zuenean hiru dantzari arituko dira pantaila aurrean.

STRIP-TEASE**MARTXOAK 24-25**

ARRIAGA ANTZOKIA

20:00

Garbi Losada + Mireia Gabilondo + Fernando Bernues + Jokin Oregi (antzerkia)
Sarrera: 9 - 18 € / Lorazaina: 12 €

Lau eszena zuzendari batu ditugu eta strip-tease gaiaren inguruan sormen berri bana eskatu diegu. Loraldia Festibala ekoizpena da, Arriaga Antzokiaren laguntzarekin.

EUTSIKO DIOGU, PETE!

THE SEEGER BASQUE SESSIONS

**MARTXOAK 26**

ARRIAGA ANTZOKIA

19:00

Lou Topet banda eta lagunak: Harkaitz Cano + Eñaut Elorrieta + Aiora Rementeria + Anje Duhalde + Izaro...
Sarrera: 9 - 18 € / Lorazaina: 12 €

Lou Topet bandak, Harkaitz Cano idazleak eta euskal musikako hainbat lagun ezagunek Pete Seeger New Yorkeko artista berpiztuko dute saio bakar eta ahaztezin batean.

E, PETREL!

JULIO VILARREKIN SOLASEAN

**APIRILAK 7**CAMPOS ANTZOKIA **20:00**

Astrolabium (teatroa)
Sarrera: 8 € / Lorazaina: 6 €

Julio Villar abentura zalearen bizi puskak ditugu antzezlan honen abiapuntu. Munduan eman zion itzulia itsasontzi txiki batean eta bertan bizitako liburu baten idatzi zuen. Orain antzezlan bihurtu da.

MIKEL URDANGARIN

"MARGOLARIA" DISKO BERRIAREN AURKEZPENA

**APIRILAK 8**CAMPOS ANTZOKIA **20:00**

Mikel Urdangarin + banda (musika)
Sarrera: 15 € / Lorazaina: 12 €

Mikel Urdangarin bide luzeko kantugilea dugu. Grabazio berri bat burutu du negu honetan eta Loraldian aurkeztuko du aurrenekoz. Berarekin batera, puntako musikariak izango dira eszenatokian: Rafa Rueda, Koldo Uriarte, Angel Celada, Jon Cañaveras eta Nika Bitchiasvili.

WWW.LORALDIA.EUS**LORALDIA + elkar**

MARTXOAK


14 **EREÑOTZU**
Xabi Solano Maiza **ELKAR (IPARRAGIRRE,26)**
19:00

21 **BAINERA BETE ITSASO**
Miren Amuriza eta Irati Eguren **ELKAR (ZAMUDIO ATARIA)**
19:00

28 **KAFE BAT**
KATTALIN MINERREKIN
Kattalin Miner + Danele Sarriugarte **ELKAR (LICENCIADO POZA,14)**
19:00

4 **(EUSKAL) KULTURAREN ALDE (ETA KONTRA)**
Iban Zaldua eta Iñigo Astiz **ELKAR (LICENCIADO POZA,14)**
19:00

APIRILAK



APIRILAK

Xabi Solano trikitilarriak "Trikitixa liburua II" eta "Ereñotzu" diskoak aurkeztuko ditu.

Bertsolari eta sortzaile bizkaitar emankorraren proiektu berria dugu liburu hau.

Kattalin Miner (Hernani, 1988) ekintzaile feminista eta kulturgile ezagunak bere lehen liburua kaleratu du: "Nola heldu naiz ni honaino".

Iban Zalduak bere begirada kritikoa eta luma zorrota lanean jarri ditu literaturari oro har eta euskal literaturari bereziki erreparatzeko.

IZAN ZAITEZ
LORAZAINA!

WWW.LORALDIA.EUS/LORAZAINA


ALGORTA (GETXO)

 Tellebte 11
944916616
ARRASATE

 Erdikokale 14
943797829
BAIONA

 Arsenal plaza
559593514
BASAURI

 Dr. Jose Garai 11
944261384
BERGARA

 Irbargarai 7
943764050
BILBO

 Licenciado Poza 14
944434708

 Iparragirre 26
944240228

 Zamudioko ataria
 Zazpikale
944161450
DONOSTIA

 Fermin Calbeton 21
943420080

 Fermin Calbeton 30
943422696

 Bergara 6
943426350
GASTEIZ

 San Prudencio 7
945144501

 Apraiztarrak 1
 Campus
945141670
HERNANI

 Kale Nagusia 30
943551537
IRUN

 Colon pasealeku 8
943631726
IRUÑEA

 Comedias 14
948224167

 Larraona z/g
 Golem erakina
948175538
TOLOSA

 Arostegieta z/g
943673533

HIZKUNTZA ESKUBIDEEK BADUTE BEREN PROTOKOLOA

Abenduaren 17an aurkeztu zen Donostian Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. 1996an, Bartzelonan, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala adostu zenean, aldarrikatu zen hizkuntza anitzasuna balio gisa ulertu eta hizkuntza guztiak lekuak izan behar dutela. Hizkuntzari giza eskubide neurria eman zitzaien nazioarteko deklarazio baten bidez, lehen aldziz.

Hogei urte geroago, Donostian, Kontseilua eta Donostia 2016 erakundeek antolatuta, zehaztu dira deklarazioan onartutako arauak betetzeko harta beharreko neurriak. Horretarako eratutako Europa mailako talde antolatzalea eta batzorde zientifikoak arduratu dira, ekarpenak jasotak, protokoloa eratzeaz. European hizkuntza gutxituen alde lanean ari diren gizarte eragileek proposatu dituzte protokoloa egiteko neurriak, tartean Euskal Herrikoak, eta **elkar** Fundazioak ere parte hartu du kultura arlorako ekarpenak eginez.

Orain, protokolo hori hizkuntza bakoitzaren beharretara egokituta martxan jartzeko unea da. Izen bedi Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa euskaraz bizi nahi dugunon eskubideak errespetatzeko tresna egokia! Eta berdin mundu osoko gainerako hizkuntzetako hiztunentzat ere.

Irakurri protokoloa: <http://protokoloa.eus/>

LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS YA TIENEN SU PROPIO PROTOCOLO

El 17 de diciembre se presentó en Donostia el Protocolo para la Garantía de los Derechos Lingüísticos. Cuando en 1996 se aprobó en Barcelona la Declaración Universal de los Derechos Lingüísticos, allí se reivindicó que la diversidad lingüística debe considerarse como un valor, y que han de respetarse todas las lenguas. Mediante esta declaración internacional, por primera vez se le otorgó a la lengua la consideración de derecho humano.

Veinte años después, de la mano de Kontseilua y Donostia 2016, se han concretado las medidas para el cumplimiento de las normas aprobadas en la declaración. El grupo a nivel europeo creado para tal fin y el comité científico se han encargado de recoger aportaciones y crear el protocolo. Los diferentes grupos que están trabajando en Europa a favor de las lenguas minorizadas han sido los que han propuesto las medidas para crear el protocolo, entre ellos varios de Euskal Herria, y la Fundación **elkar** también ha participado aportando en el ámbito cultural.

Ahora, es el momento de adaptar ese protocolo a las necesidades de cada lengua y de ponerlo en marcha. ¡Ojalá el Protocolo para la Garantía de los Derechos Lingüísticos sea la herramienta adecuada que permita respetar los derechos de quienes queremos vivir en euskera! Así como los de los hablantes del resto de idiomas de todo el mundo.

Para descargar el protocolo: <http://protokoloa.eus/>

Jarraí gaitzazu sarean! ¡Síguenos en la red!

POSTDATA bloga

Ikusiena euskara:

- Jon Alonso Tene Mujika Sariaren irabazole, *Naparra* kasuaz idatzeko proiektu batekin.
- Pantxiaka Maitia kazetariak Pantxoak Carreteri egindako elkarritzeta *Anaitasunean* (Elkar) diskoiari buruz.

**Lo más leído
en castellano:**

- Adelanto del libro *Un final para ETA* (Tarttalo) de Imanol Murua.
- La versión digital de la Revista **elkar**.

FACEBOOK

**Biralitate handiena lortu duten
euskarazko sarrerak:**

- 9. elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketaren aurkezpena.
- **elkar** argitalteak eta Katxiporetak "Plazaipuinak" eta "Nor gara" bildumak aurkeztu dituzte.

Contenido más viral en castellano:

- Sorteo del libro *Sarah's Scribbles - Crecer es un mito* de la autora Sarah Andersen de la editorial Bridge.
- Los nuevos libros de la colección Euskal Herria para el 2017.

TWITTER @elkar

**Interakziorik handiena eragin
dutent euskarazko sarrerak:**

- Danele Sarriugartek Eskafandra bilduma berriko Angela Davisen *Emakumeak, arraza eta klasea* (Elkar - Jakin) itzuli du.
- Haur Literaturako Mikel Zarate Sariaren edizioa berria abian.

**Contenidos
más interactivos:**

- Reseña de Joserra Rodrigo en la web *Exile SH Magazine* sobre el disco *Guria ostatuau* (Elkar) de Ruper Ordorika.
- Presentación de *La hora de despertarnos jun-*

tos (Seix Barral) y *Elkarrekin esnatzeo ordua* (Susa) de Kirmen Uribe en **elkar** Gasteiz.

Orain **INSTAGRAM**en baita ere

Orain elkarren gertatzen den gutzia gertutik jarrai dezakezu instragramean ireki dugun **@elkar_taldeak** kontuari esker.

Argazkirkirik ikusiena:

- Kattalin Miner-en *Nola heldu naiz ni honaino* (Elkar) liburuaren azala.

La foto más vista:

- Firma de libros de *Todo esto te daré* (Planeta) de Dolores Redondo en **elkar** Donostia.



Como si Dostoievski se pusiera en la piel de un niño

Si hoy estamos aquí es porque uno de nuestros
ancestros dijo: es él o yo.



Síguenos en: **catedral.books** **CatedralBooks** **catedral.books**



AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: JUANTXO EGAÑA

ARANTXA ITURBE

Koaderno zuri antzerki obra taulatik liburura dator. Tere Beloki eta Nekane Peñagarikano kazetariak behin behar eta, Arantxa Iturberekin hizketan.



KOADERNOA ZURI
Arantxa Iturbe
ELKAR

Alderantzizko bidea kanpoko ahots bati erantzunda?

Xabier Mendigurenen proposatu zidanean antzerki lanak argitaratzea, bere horretan baino esperimentua egingo nukeela esan nion: azkeneko lana hartzeta eta irakurtzeko moldatu.

Liburua, zeureago?

Neureago, bai. Hitzak dira nire. Oholtza gaineko mundua Agurtzane Intxaurragarena da. Hitzak berberak izan arren, liburuan irakurle bakoitzak

eraiki behar du bere mundua. Ez al da zoragarria literatura?

"Dena da nirea, beste batzuk hobeto idazten dutte nirea askotan". Begoñak esandakoa, Arantxa Iturbek edo Anne Sextonek?


Ez al zaizue gertatzen? Egunik egozentrikoenaren esaten duzu: neuk esan behar nuena kontatu du, lapurtu egin dit, inbidiaz. Denborarekin postzu egiten nau beste buru batzuek nirea bezalatsu funtzionatzen dutela jakiteak. Bakarrik ez sentitzeko beste modu bat.

Begoñak amari bezala, norbaitek koadernoa bozgoraz irakurriko baligu?

Hamaika irakurketa desberdin. Nik gustura entzungo nuke Begoña bera irakurtzen. Hark daki inork baino hobeto idatzitako hitzok nola esan.

Amak gustura aditu al zion?

Ez dugu inoiz jakingo. Begoñak Arrateri esango dio: 'nik ez nuen ulertzea nahi. Nahi nuen maitatzea'. Pentsatu nahi dut ama irribarrez hil zela, ados ez egon arren. Alabak bere bizitza eraikitzea lortu du eta kontatzera etorri zaio.



**NUEVAS EDICIONES DE
DOS CLÁSICOS IMPRESCINDIBLES
DE CHARLES DICKENS**

 NOCTURN
EDICIONES



Bi ahizpen arteko 20 urteko isiltasuna...

Koadernoa zuri bi ahizpen arteko istorioa dela esan dugu, ama hil zaie, urtetan elkarrekin egon gabe... Behin eta berriro irakurrita, ordea, ahizpak izan edo ez, arau zorrotz eta hertsien aurrean har ditzakegung bideei buruzko lana da. Batek ihes egindo du, kontra egiteaz aspertuta; besteak, otzan, arauen morrontzape horretan bizirauteko ahalegina egingo du.

Ihes, beroa entzuten den Dakarrera. Soinuminez. Sentimendu hori bazenik ere...

Soinumina? Izango ez da ba! Entzuten dakien edonork sentitzeako modukoa... eta idazle izateko arrazoietako bat: hitzkin jolas egitea gozagarria bada, hitzen soi-nuekin jolas egitean bikoitzu egiten da.

Beste min batzuen sintomak ere badira liburuan...

Bada pare bat gaixo Arrate medikuaren konsultan. Seguruenik tipifikatu gabeak eta diagnostiko zailekoak, baina ezagutzen ditut halakoak.

Hain zure ipuin neurrikoak ez ote diren.

Seguru aski bai. Agurtzanek esaten zidan obrak behar zuela arnasa hartzeko momenturen bat hain toki itoan. Irribarrerako aitzakia ematen dute.

Bestela, negar isila entzuten da?

Izatekotan, isila. Mina barrurakoa da. Malkorik gabea. Eta mingarriagoa da askotan malkoekin doana baino.

Bi ahizpek bestearen bertsioa hogeい urte eta ge-ro entzun dute.

Gure kondenetako bat. Bakotzak gure bertsioa dauka-gu, besteeneik ez dakigu. Eta ez da beti jakiteko ahaleginik egiten.

Bikote-harreman aitorpen bana bertsioak osatzu?

Garrantzitsuak dira harremanak bizitzan. Begoña ihesi, bizitza librea nahi duelako joan da. Gizon bat ezagutu du, ez dakigu noiz, maitemindu, eta haren kulturako arau edo tradizio baten kontra itzuliko da etxera. Arrateren harremanean, berriz, hirugarrena berak hala nahita dator. Senarra du, tradizioz hala tokatzen zaiola-



**“Agurtzane Intxaurragak
jantzi zuen Koadernoa zuri;
nik berriro biluztu dut”**

Libururako Agurtzane Intxaurragaren ahotsik ez?

Agurtzanez ahotsa hor dago. Bion arteen eraikitako lana da. Berak gorputzu du jendaurrerako. Nik idatzi, jendearentzat. Hark nire hitzak jantzi, eta nik erantzti, biluztu...

Antzerki obra gehiago liburura?

Kitto. Esperimentuak behin eginda du grazia. Bainag Agurtzanek esan zidan lehengoan gure antzerki lanak ez daudela argitaratuta. Ezta bakarra ere! Eta badira honezkero dozena erdi. Beraz... editore bila gabiltza.

Izenburua Begoñaren ahotik?

Koadernoa zuri. Zurian dago Begoñarena, eta beste edonorena, idatzi bitartean, eta idazten hasitakoan zuri, amari, idatziko dio hark. Bainan izan zitekeen zuri...

TERE BELOKI / NEKANE PEÑAGARIKANO

Irratilaria

ATLAS DE CARRETERAS Y MAPAS NACIONALES

INDISPENSABLES EN TUS VIAJES!

MICHELIN
La mejor forma de avanzar

PILAR KALTZADA
Kazetaria



Proposamena

GARBITEGIAK

Liluraturik nauka gure herrian ireki duten garbitegiak. "Eko-garbigailuak" dio kartel berriak, eta beirazko erakusleihoa handietatik begiratuta, labortegia dirudi. Oraindik gutxi dira bezeroak eta beharbada horregatik, irribarre egiten dit mostradorearen bestaldeko mutilak begira harrapatzten nauen guztietan. Noizbait proba egin beharko dut, bertara sartzeko plazer hutsarengatik besterik ez bada ere, etxean baitut nik, gutariko gehienok bezala, etxeiko garbigailu aproposa.

Liluraturik nauka, herrian garbitegi berria ireki duten garai bertsuan topo egin baitut nik Lucia Berlin (Alaska, 1936 – Los Angeles 2014) idazlearen *Manual para*

mujeres de la limpieza bildumarekin. "Gau ilun eta sakonean, likore-dendak eta garbitegiak itxita daude" esanez agurtu ninduen liburuak, eta harako bidea promes egiten zidan: gau ilun eta sakonera, bai, baina bereziki garbigailu-lokal zahar eta aldi berean, bizi-printzez beterikoetara.

A Manual for cleaning women: selected stories izenburuarekin argiratu zen Estatu Batuetan 2015. urtean, eta berealdiko lurrikara eragin du letren munduan: milaka ale saldu dira eta kritikak narratzaile handi eta klasikoen pare jarri du. Liburuak gomendatzeko ohitura txarra duen adiskideak esan zidanez, behingoa-gatik bat etorri dira gustu popularra

(sic) eta kutizia-zaleenak eta behingoga-gatik, zuzen daude guztiak.

Emakumeak dira bilduman jasotako istorioen protagonistak; askotariko emakumeak, anitzak eta kaotikoak, ahots propioarekin mintzo direnak. Emakume horiek giza-atlas egiazkoaren elementu geografikoak dira: pobrezia eragindako bailara sakonak, alkoholak ireditako lur-errenetan eta urratsez urrats zaramatzetalarik, plaka tektonikoen talkak eragindako paisaje infinitua marrazten dute. Orrietan aurrera egin ahala ateratzen dira azalea azpi-mundu horiek guztiak: barne-eta kanpo-indarrek zentrifugaturik pieza urratuak.



MANUAL PARA MUJERES DE LA LIMPIEZA
Lucia Berlin
ALFAGUARA

Profilo JOYCE CAROL OATES

ELOGIO DE LA PERSONALIDAD INDEFINIBLE

Cuando se pregunta a escritores sobre la primigenia motivación para escribir, muchos responden ahondando en aspectos de su personalidad que moldean la construcción de su obra literaria. En el caso de Joyce Carol Oates (Lockport, Nueva York, Estados Unidos, 1938), la falta de una personalidad definida es lo que hace más impactante su literatura, unida a su producción inagotable: más de 100 libros, con más de cincuenta novelas, relatos, obras de teatro, ensayos, críticas literarias etc. Muchos críticos la consideran la gran hacedora de un retrato psicológico de la gente corriente y los personajes históricos de América, con toques góticos y un estilo fluorescente, donde son marca de la casa comparaciones metafóricas entre sus personajes y elementos de la naturaleza y ciertos mobiliarios urbanos. Quizás sea ese inagotable afán por tocar todos los géneros y temas (desde la vida de Marilyn Monroe en *Blonde* hasta la tragedia automovilística cargada de alcohol que arruinó la carrera política de Ted Kennedy en *Black Water*) lo que la hace única. Cuando aseguró que no estaba segura de que tuviera una per-

sonalidad, provocó un cataclismo en la personalista e individualista sociedad literaria americana.

Eterna candidata al Premio Nobel, su estilo sofisticado a la vez que directo es lo que más encandila al lector. Sus personajes femeninos tienen la fuerza suficiente para hacer frente a tragedias cotidianas y ser protagonistas de violencias sin sentido, sufren un desequilibrio psico-social. En una de sus grandes novelas, *Mamá*, construye con precisión obsesiva de cirujano el relato sobre la pérdida de la madre, y a través del dolor nos funde en un abrazo con nuestra madre y nos anticipa nuestra propia pérdida, en un relato alucinógeno. El tempo proustiano de la novela nos engancha y Oates consigue hacer interesante, en el más amplio sentido, una familia americana ordinaria, gracias la precisión de su técnica narrativa. La cinco veces ganadora, entre otros muchos premios, del Pulitzer, es una mujer que busca en la literatura la catarsis perfecta para que nosotros sigamos sorprendiéndonos de los lados más oscuros de la naturaleza humana y de su fortaleza.



HASIER REKONDO
Periodista y crítico literario





ANJEL LERTXUNDI IDAZLEA

MUGA-mugan


LITERATURA ETA MUNDUA ABEZEAN EMANAK

Muga. Elkarren ondoan dauden bi errealitate edo gehiago bereizten dituen irudizko marra. Alfabetoko letrak, adibidez. Aingira eta aingura elkarren hurbil daude hiztegietan, baina batek, hitz askok bezala, txirrist egiten digu esku artean; besteak, hitz askok bezala, gatibatu eta lotu egiten gaitu toki jakin batera.

Zeharo maiztua daukat eta orri askatuekin Seix-Barral etxeak 1983 urtean argitaratutako Alberto Savinioren *Nueva enciclopedia liburuaren nire alea* (Acantilado argitaletxeak edizio berri bat argitaratua du berriki, orririk nekez galduko zion edizio txukunean). Saviniok sarreran dio: "Oso nago desgogara ezagutzen ditudan entziklopediek, eta neure-neure bat idatzit dut nire erabilera propiorako". Idazle italiarraren formulazioak, entziklopediak kritikatzeaz gainera, garbi adierazten du: munduaz hitz egiteko bere neurriko entziklopedia bat nahi du osatu, honetaz eta hartaz pentsatzen duena zehaztuta eduki, bere pentsamenduaren geografia marratzu, idazlea eta irakurlea mapa berean kokatu. Alfabetikoki ordenatuta eta ironiaren tintetan blaitua dago liburia, ohiko entziklopediak ez bezala.

Norberak norberarentzat osatutako historia bat, entziklopedia bat, hiztegi bat... Saviniok bezalatsu, Ambrose Biercek ere bere burua eta mundua ordenatzeko balioko zion hiztegi bat zuen amets: *Deabruaren hiztegia* osatu zuen (Ibaizabal, 2000). Fernando Trueba zinegileak bere artea hobeto ulertu nahi, eta zineaz zekiena finkatu zuen idatziz: *Mi diccionario de cine* deitu zion (Galaxia Gutenberg, 2006), gaztelaniazko *mi* posesioarekin garbi uzten duelarik zineari buruzko bere aportazio pertsonal ez akademikoa baten aurrean gaudela, bere estetika propioparen emaitza intelektuala biltzen duena.

Alfabeto bat, jakina baietz, izan liteke testu literarioak ordenatzeko modu bat. Beste edozein ordenamendu bezain zilegia. Formulak etekin handia eman dezake: hiztegi eta entziklopedien zorroztasunari eransten bazaizkio jokoaren eta halabeharraren eta kalkuluaren aukerak, produktu guztiz berri bat da emaitza. Bernardo Atxagaren alfabeto gisa emandako testuak gozatzeko aukera ematen zai-gu, adibidez Groenlandiako lezioak liburuaren orriean



ILUSTRAZIOA: ANTTON OLARIAGA

barrena (Erein, 1998), adibidez *Alfabeto de las pulgas* (Pamiela, 2013) bildumarekin. Aldian-aldian Sarriónandiren *Hitzen ondoezari* (Txalaparta, 1997) egindako bisitak etekin asko ematen du inoiz amaitzen ez den hitzak pisatzeko eta "aintzat hartzeko" ikasketan.

Czeslaw Milosz-ek alfabeto baten modura antolatu zuen bere autobiografia eta *Abekalio Milosza* deitu zion (*Abecedario, Diccionario de una vida*, Fondo de Cultura Económica, Madrid) ia bizi osoan exilioan egindako bere ibilbide poetikoaren kontakizunari. Inger Christensen-ek, XX mendeko poeta daniar onena konsideratuak, *Alfabet* deitu zion (gaztelaniaz, *Alfabeto*, Sexto Piso, 2014) bere poema-liburu nagusiari. Matematikaria zen lanbidez, eta

alfabetoa bezalako serieak eta matematikako hainbat sekuentzia baliatu zituen bere obran. Ez nuke aipamenen zerrendatik kanpo utzi nahi Javier Pérez Andújarren *Diccionario enciclopédico de la vieja escuela* argitaratu berria (Tusquets, 2016): frankismoaren azken hamarkadan jaiotako belaunaldiaren iniziazio kultural sentimentalaren miszelanea bat da liburia. Munduari begiratzeko modu berriei buruzko hausnarketa bat, besteak beste: komikiak, rocka, undegraunda, telebista, kultura popularra....

Italo Calvinok *multiplicitá* hitza baliatu zuen halako literatura-mota definitzeko: errealitateak ertz ugari baditu, begiradak ere kantoi asko behar munduaren ibilbideari erreparatzeko.

KATTALIN MINER

**Otsailarekin batera iritsi zaigu
Kattalin Minerren lehen eleberria:
*Nola heldu naiz ni honaino; 2015eko
Igartza bekaren fruitu. Galdera mordo
bat dakartzza Minerren opera primak,
eta horietako batzuen erantzuna
topatu ote duen galdetu diogu.***



**NOLA HELDU NAIZ
NI HONAINO**
Kattalin Miner
ELKAR



Izenburutik has gaitezen: *Nola heldu naiz ni honaino*. Nora eta nola iritsi da Jezabel, eleberriko protagonista?

Jezabelek besteei begira botatzen du galdera hori, beti besteak ikusten ditu irtenbiderik gabeko bide batean; beren bizitzen jabe ez direla. Gero, halabeharrez, hainbat erabaki hartzen ditu oso azkar, eta orduantxe hasten da bere buruari galdetzen ea benetan erabaki ote duen dagoen tokira iristea.

Hala ere, abiapuntua beste galdera bat da: telebista ala sukaldetako tresna-sorta? Itxura batean ez da hain erabaki zaila...



**“Sinetsi nahi dut
beti dagoela norbera
bizi den katilutik
ateratzeko modua”**

Gure jendartean iruditzen zaigu erabaki handiek bideratzen dutela gure bizitza, eta esango nuke askotan erabaki importanteak deitzen ditugun horiek errazago harzen ditugula badakigulako, gutxi gorabehera, zein den norabide ona. Beraz, badakigu zer ikasi nahi dugun, non bizi nahi dugun, baina gero dudatan egoten gara zer jan, zer arropa jantzi... Azkenean, horiek ez ote dira beste zerbaitean isla? Kafe-makina ala telebista, hor ez dago duda errealki, horrek ez dizu bizitza oztopatzan, baina gauza txikieng bidez kanalizatu behar izaten ditugu beste duda handiak.

**Jezabelek hartu beharreko beste erabaki bat:
zer-nolako jefa izan.**

Bai, jefa gainera. Azkenean, emakumea eta nagusia iza-teko, aukera bat da gizonezkoen eredu imitatzea, hau da autoritatea markatzea eta abar; baina, horrek klike bat dauka, berez zure generoari ez dagokion rol batean ari zarelako. Magnifikatu egiten da, Thatcherren kasuan bezala, adibidez. Bestela jefa onbera bat izan zaitezke, lankideen laguna, baina orduan autoritatea galtzen duzu. Oraindik ez dago emakumea eta nagusia bere horretan izateko eredurik.

Azaleko arraina ote da Jezabel? Berak aukeratu al du kafe-katilua bizileku?

Izan liteke. Ez dakit bizi garen katilua edo arrainontzia erabakitzentz ote dugun, baina uste dut hori eraikitzen gozela modu batean edo bestean, hartzen ditugun erabakiekin. Hala ere, sinetsi nahi dut beti dagoela katilutik ateratzeko modua, katilua apurtzekoa edo eraldatzeko. Jezabelen krisietako bat hori da: katiluaren jabe izatea. Hori da lehenengo pausoia.

Amaitzeko, zergatik aukeratu duzu lanean arrakasta daukan eta egoera ekonomiko onean da-goen protagonista bat?

Uste dudalako EAEn behintzat badagoela oraindik klase ertain bat. Baldintza prekarioetan bizi garen arren, pobreziatik oso urrun dagoen belaunaldi bat gara, eta hori erakusteko gogoa neukan. Jarri nezakeen askoz egoera okerragoan dagoen pertsona bat, baina uste dut azaleratu behar dela beste errealitate hori, erakutsi behar nituela geure pribilegioak, bestela biktimistegia irudiko litzaidake, eta ez hain errealista.

DANIELE SARRIUGARTE
Idazlea

HATZ-LIBURUAK bilduma
Jolastu zure haurtxoarekin!
Ikasi egingo du bere lehen liburuarekin!

giltza
www.adibiz.com






**elkar
jolasak
euskaraz**



NOR NAIZ?

HABA | +5 urte

Galdera-erantzunez osaturiko jolas klasikoa.
Galdera egokiak egiten dituen jokalariak
asmatuko du irudia zein den.



ZIENTZIA SUKALDEAN

4M-elkar | +8 urte

Egin esperimendu harrigarriak eguneroako materialekin.
Inspirazioz beteriko kit dibertigarria. Bereziki diseinaturiko
sukaldeko 6 esperimendu dakartzza.

MONOPOLY EUSKADI

ELEVEN FORCE | +8 urte

Bizi merkatari handizale baten bizitza zirraragarria
jabetza higiezinen munduan murgilduta.
Bidaia Euskal Herrian zehar
aukera onuragarrienak bilatz!

-5%
Jolas guztietan **elkar** txartelarekin
En todos los Juegos con la tarjeta **elkar**


9



MARGOTU ZURE TE-ONTZITXOAK

4M-elkar | +8 urte


Margotu zure te-ontzitxoak diseinu bereziekin. 13 piezako
te ontziteria txikia margotzeko beharrezko material guztia daka.



DINOSAUROA-MOLDEATZEKO ETA MARGOTZEKO

4M-elkar | +5 urte

Moldeatu eta margotu hozkailurako igeltsuzko iman
eta eranskailu zoragarriak. Opari polit bat zure lagun
eta senideentzat!



EGUZKI SISTEMA-MUGIKARIA EGITEKO KITA

4M-elkar | +8 urte

Egin eta zintzilikatu zure gelan argia egiten duten
eguzki sistemaren mugikaria, benetakoak bezala
egiten du distira eta bira.



Informazio gehiago: <http://bit.ly/jolasak>

180904

NOVEDAD

9,95€

PRINCESAS DRAGÓN

¿Es que no te has enterado?
¡El cuento ha cambiado!

LITERATURASM.COM



UNAI ITURRIAGA

LASTER liburu-dendan...

▷ Udaberrian **Elkar** argitaletxeak helduentzat aterako dituen liburen artean, **Jon Maiaren Euskal Herri itsastarra dago**, gaztelerez ere argitaratuko dena (*El mar al bordo del San Juan*).

▷ **Random House** anuncia la próxima publicación de la última novela del premio Nobel de Literatura **J.M. Coetze**, *Los días de Jesús en la escuela*.

▷ **Pamielak** udaberrian argitaratuko ditu, besteak beste: **Juan Kruz Igerabideren** *Labur*

txintan aforismo libura; **Jon Iñaki Lasaren Bidaiaik 2016** poesía libura eta gaur egun Nafarroan euskaraz idazten ari diren idazleen narrazio laburren antología bat.

▷ *El hijo del capitán* de **Sergio Pereira** es uno de los títulos que anuncia la editorial **Tarttalo**.

▷ **Txalaparta** argitaletxeak maiatzak aldera **Joseba Gabilondoren** saiakera bat argitaratuko du populismoari buruz. Baita **Periko Solabarriaren** *Conversaciones con la juventud* ere.

▷ **Seix Barrall** tiene previsto publicar la nueva novela del Premio Nacional de Narrativa **Ignacio Martínez de Pisón**, *Derecho natural*.

▷ **Susa** argitaletxeak **Juanjo Olasagarreren** *Poz aldrebesa* daka, baita **Martxel Mariskalen** *Azken zakatzak*, **Juan Luis Zabalaren** *Ospa eta Mari Luz Estebanen Feminismoa eta politikaren eraldaketa* ere. Gainera, Munduko Poesía Kaierak bildumaren barruan hiru ale berri iragarri ditu: **Andrienne Rich**, **Alfonsina Storni** eta **Dylan Thomas**.

▷ **Alfaguara** prevé publicar esta primavera la nueva novela de **Manuel Vicent**, *La regata*.

▷ La editorial **Txertoa** publicará *Cama familiar noches felices*, de **José Luis Segura**.

▷ *Lo que te diré cuando te vuelva a ver* es el título de la nueva novela de **Albert Espinosa**, que saldrá próximamente a la calle de la mano de **Grijalbo**.

▷ Haur literaturan hurrengo hilabetetan **Tarttalón** helduko

diren batzuk: "Wakou, naturari buruzko nire entziklopedia txikiak" bidumako bi ale berri: *Sumendia eta Animalien kumeak eta Irakur ezazu ipuin bat ipuin libura*. **Elkar** argitaletxeak bestalde, **Ana Jakaren Ixon**, **Xabi Arnalen Hodeietan** eta **Paddy Rekalderen Eta sagarrondoan banitz** argitaratuko ditu, besteak beste.

▷ Musikari dagokionez, **Elkar** diskoetxeak **Mikel Urdangarin** *Margolaria* diskoa iragarri du martxorako.


Quince años después de *Soldados de Salamina*

JAVIER CERCAS

vuelve a la Guerra Civil con su nueva novela
El monarca de las sombras

Ninguna familia escapa a su herencia

Sobre los vencedores y los vencidos y los secretos que todos callamos



#VuelveCercas

Síguenos en:



www.literaturarandomhouse.com



Penguin
Random House
Grupo Editorial





EL SILENCIO DE LAS HAYAS DIEZ AÑOS, DIEZ MIRADAS

EL SILENCIO DE LAS HAYAS

Mikel Alvira
TTARTTALO

DIEZ AÑOS DE "EL SILENCIO DE LAS HAYAS", EL SLOW SELLER DE MIKEL ALVIRA

Que una exposición centrada en el aniversario de la publicación de un libro comience el Día del Árbol (21 de marzo) y termine el Día del Libro (cerrará el 24 de abril por ser el 23 domingo) es un círculo perfecto. Es una simbología tan atinada que sólo podía salir de la cabeza de quien entiende la literatura de una manera viva y natural.

Mikel Alvira es un hombre de maridajes. Vino y música. Arte y lenguaje. Libros y árboles. De ahí surge la exposición sobre *El silencio de las hayas*, una novela publicada hace diez años y que acaba de alumbrar su séptima edición. Es uno de esos "slow sellers" fraguados entre sus miles de lectores.

La historia de Mieltxo y Cataline y de su casa, Sorogibel, ha corrido de boca en boca. Uno le ha contado a otra que las hayas de los Pirineos navarros, esos árboles que son los últimos que crecen donde hay habitación, han sido testigos silentes de la historia de una familia que se ha visto condicionada por los acontecimientos. No es una novela sobre la guerra civil, ni la posguerra ni la preguerra. Es una novela que habla de la vida, de esas decisiones que tomamos en el día a día y que solo el tiempo dirá si fueron acertadas.

A *El silencio de las hayas* le mueven las emociones. Lo que nos motiva, las uniones que tejemos con cada acto, son las protagonistas de una novela que ha crecido con sus lectores.

DIEZ MIRADAS

Porque ve su obra como algo colectivo, Mikel Alvira ha querido regalar diez miradas a quienes se han acercado a ese punto indeterminado de Navarra en el que está Sorogibel.

Diez personas con las que ha compartido emociones se han embarcado en esta idea de aportar su mirada sobre las hayas. La exposición se centra en diez fotografías de toda forma y condición. Blanco y negro, color, collages, fotos manipuladas o escultopintura. Cualquier formato imaginable para resumir las miradas que se han creado de *El silencio de las hayas* a través de sus lectores.

Para Alberto Morillo participar en esta exposición ha sido un reto. "Mikel es muy polifacético y ataca la creación desde diversos ángulos. He querido transmitir algo que esté a su altura, la de un artista global que influye en quienes no somos artistas".

Curiosa es la forma de acercarse al libro de Marta Salas, artista que aúna fotografía y poesía. "Esta fotografía la imaginé basándome en el título del libro, no quise leerlo antes para no verme influenciada". Silencio, se sueña. Así se titula su obra.

BEGOÑA BERISTAIN
Periodista

Exposición DIEZ MIRADAS

FECHAS: Del 21 de marzo (día del árbol)
a 23 de abril (día del libro)

LUGAR: CIVICAN de Iruñea-Pamplona

HORARIO continuado de biblioteca




SILENCIO, SE SUEÑA

Marta Salas, fotógrafo



GENERACIONES

Natalia Pedrero, artista plástica




HAYAS

Alberto Morillo, fotógrafo



Iván Repila
Prólogo para una guerra

La nueva novela de una de las revelaciones más sonadas de los últimos años en el ámbito internacional.



Ignacio Martínez de Pisón
Derecho natural

El retrato de una familia en un país en pleno cambio. La nueva novela de Ignacio Martínez de Pisón, Premio Nacional de Narrativa.



Enrique Vila-Matas
Mac y su contratiempo

La más deslumbrante y divertida novela de Enrique Vila-Matas.



Premio Biblioteca Breve 2017
Antonio Iturbe
A cielo abierto

Tres grandes amigos cambiaron la historia de la aviación. Uno de ellos, además, marcó la vida de millones de lectores al escribir *El Principito*.

Seix Barral



INFO +: WWW.ELKAR.EUS/ARETOA

Agenda osoa eskura:

<http://bit.ly/elkar-aretoa>**Martxoan:**elkar aretoa **LORLDIArekin bat:**

EUSKAL KULTURA GAUR

14 - 19:00H:**Bilbo, Iparragirre, 26:**

Xabi Solano Maiza
Ereñotzu + Trikitixa liburua II.
Aurkezpena

21 - 19:00H:**Bilbo, Zamudioko ataria:**

Miren Amuriza eta
Irati Eguren.
Bainera bete itsaso
Solasaldia

28 - 19:00H:**Bilbo, Licencido Poza 14:**

Kattalin Miner eta Danele Sarriugarte
Kafe bat Kattalin Minerrekin
Solasaldia

Apirila:**Bilbo, Licencido Poza 14:****04** - 19:00H:

Iban Zaldua eta Iñigo Astiz
(Euskal) Literaturaren alde (eta kontra)
Solasaldia

Martxo / Marzo:**Bergara, Ibargarai, 12:****10** - 18:00H:

Apili tailerra
Haurrentzako tailerra / Taller infantil

Iruña, Comedias 14:**01** - 18:30H:

Algunos me llaman El Rubio
Solasaldia / Tertulia

Gasteiz, San Prudencio 7:**24** - 18:30H:

Bocanada
Lagin akustikoa / Muestra acústica

28 - 18:30H:


Cooperación. Verdades, mentiras y
vivencias de una étupía?
Solasaldia / Tertulia



RUSIA, 1825
DOS CANDIDATOS EN
UN DUELO DE MAGIA
A MUERTE

«Una historia cautivadora».
Sabaa Tahir, autora de *Una llama entre cenizas*

NOCTURN
EDICIONES



JAVIER CERCAS

Javier Cercas (Ibahernando, 1962) presenta *El monarca de las sombras*, un relato que maceraba en su ser desde que quiso ser escritor. La novela narra la historia de Manuel Mena, su tío abuelo, un joven que murió en la terrible Batalla del Ebro. Tenía 19 años y vestía uniforme franquista. A través de ella, el narrador mira de frente a su herencia, la verdadera crónica de sus antepasados.



EL MONARCA DE LAS SOMBRAS
Javier Cercas
RANDOM HOUSE

En el epílogo de la edición de 2015 de *Soldados de Salamina* dice que lleva años tratando de "escribir un libro que esté a la altura de él". ¿Es *El monarca de las sombras* ese libro?

Espero que sí. Yo siempre intento que el libro que estoy escribiendo sea mi mejor libro, y el día que deje de intentarlo dejaré de escribir.



“Con este libro siento que he saldado una deuda personal y familiar, moral e histórica”

Se trata de la historia de Manuel Mena, su tío abuelo, pero también la historia de todas las familias de España. ¿Hasta qué punto necesitaba escribirlo?

La historia de Manuel Mena la tenía en la cabeza desde que soy escritor, o más bien, desde que tengo uso de razón, porque es una de las primeras historias que le oí a mi madre, que es quizás la protagonista secreta de este libro. Podía no haberla escrito, desde luego; de hecho, creí que nunca sería capaz de escribirla, entre otras cosas porque eso entrañaba hablar del pueblo de Extremadura en el que nací, cosa que no había hecho nunca, y de mis orígenes personales y familiares: unos orígenes que muchas

veces me han avergonzado, que a veces incluso quise ocultarme a mí mismo. Pero, ahora que he conseguido escribirla, me siento feliz: este libro no habla exactamente de la Guerra Civil, sino de la herencia de la Guerra Civil, con la que todos cargamos; es mejor ser consciente de ella que no serlo, porque uno no puede saber adónde va si no sabe de dónde viene.

Mezcla ficción y realidad. Y, esta vez, incluso, ha incorporado a miembros de su familia.

Era casi inevitable, porque esta es una novela sobre mi familia; y por eso, como usted decía, también es una novela sobre todas las familias: pinta tu aldea y pintarás el mundo, decía Tolstoi; pinta tu familia y pintarás todas las familias, añadiría yo. Y sí: Manuel Mena, un tío de mi madre que murió con 19 años en la batalla del Ebro, peleando en el bando franquista, es el protagonista visible de la novela, pero la protagonista invisible (y quizás, repito, la verdadera protagonista) es mi madre, que me transmitió la memoria de Manuel Mena.

¿Siente que ha saldado una deuda? ¿Qué ha cerrado un ciclo? ¿O volverá a escribir sobre la Guerra Civil?

Siento que ha saldado una deuda, sí, una deuda personal y familiar, moral e histórica, aunque no sé si he cerrado un ciclo: espero averiguarlo pronto. En cuanto a la Guerra Civil, después de *Soldados de Salamina* yo creía que nunca volvería a escribir sobre ella, aunque también sabía que la historia de Manuel Mena seguía allí, agazapada; ahora no sé qué pasará: no descarto nada. La Guerra Civil es un tema inagotable.

TERESA SALA
Periodista

La entrevista completa:
<http://bit.ly/monarca-sombras>



ALFAGUARA

Album ilustratuak: irakurtzeko modu berri bat

Bazen behin bilobari ipuinak kontatzen zizkion amona bat, dozenaka, ehunka kontu. Bainaz egun batean amaiera bat ahaztu zitzaina, hurrengoan korapilo bat, hurrengoan hasiera bat...

Haur eta Gazte Literatura deritzogu bereziki umeei eta nerabeei zuzenduriko obra multzoari; izan narratiboa, lirikoa zein dramatikoa. Testu horiek dira, hain justu, txikiengkin hizkuntza lantzeko eta iruditegi konpartitua ezagutzen hasteko baliatzen diren tresna oinarrizkoenak. Irakurleak pertsonaietan identifikatu ohi dira eta berauekin batera ikasten dute, besteak beste, emozioak izendatzenten; Mies Van Houten Pozik (Tartalo) eta Ana Llenasen *Koloretako munstroa* (Editorial Flamboyant) albumek arrainekin eta koloreekin irudikatzen dituzte hurrenez hurren poza, tristura, haserrea edota beldurra bezalako sentipenak.

Egungo HGL-n hiru ezaugarri nabarmentzen dira: fantasiak, oro har, presentzia handia du, gaitegia asko zabaldu da eta idazleek gaurkotasuna duten balioak ekarri dituzte lehen planora. Leire Bilbao eta Maite Mutuberriaren *Gerrak ez du izenik* (Pamiela) lana esaterako, paregabea da txikiengkin memoria historikoa lantzeko. Nolanahi ere, azken urteotan geroz eta gehiago dira adinaren muga hautsi eta, ume eta nerabeengandik harago, irakurle helduenganaino iristen diren obrak, batez ere album ilustratuak.



ILUSTRAZIOA: MAITANE GARTZANDIA

Ya no nos queremos como antes

Un relato franco y abierto sobre la búsqueda contemporánea de sexo y placer.

TOMA Y LEE

loslibrosdellince.com

SEXO FUTURO
EL AMOR EN EL SIGLO XXI
Emily Witt

lince

Albumak dira, hain zuzen, HGL-ko formaturik arrakastatsuuenetakoak. Testuen eta irudien arteko interakzioan oinarrituriko obrak dira eta bi elementu horien antolaketa esanguratsuak bereizten ditu gainontzekoengandik: kasu askotan, ilustratzaleek orrialde bikoitzak erabili ohi dituzte testuingurua irudikatzeko, baita marrazketa zein idazketarako teknika desberdinak ere. Luisa Aguilar eta Andre Nevesen *Tximeleta-belarriak* (Kalandraka - Pamiela) albumean adibidez, orrialde bikoitzeko paisaiak ez ezik, letra mota desberdinak edota marrazki eta argazkien arteko collageak aurki genitzake.

Gaur egun, oraindik, ohiko da irakurleek albumak eta liburu ilustratuak nahastea, komeni da, beraz, bi horien arteko aldeak argitzea. Albumetan ilustrazioak beregainak izan daitezke, hau da, testurik barik ere funtzionatuko luketenak. Are gehiago, kasu askotan, testuak zehazten ez dituen ñabardurak gehitu ohi dizkiole istoriari. Maite Gurrutxagaren irudiek esaterako, detaile esanguratsuz osatzen dute Alaine Agirrek idatzitako *Martin* (Elkar) ipuin ederra. Liburu ilustruetan, ostera, testuak kontatzen duena islatzera mugatzen dira marrazkiak.

Hartzaileari dagokionez, liburu ilustratuak ez bezala, irakurleak jarrera aktiboa izatea eskatzen du albumak; idatzizko kodea zein irudizko interpretatzetan eta bien arteko loturak egiten jakitea obraren mezua bere osotasunean ulertzeko. Elementu bi horien arteko uztarketa izan ohi da, sarri, albumaren kalitatearen erakusgarri. Nolanahi ereden, hainbesteko indarra hartu dute ilustrazioek, ezen testurik bako albumak ere lekua egiten ari baitira, Eider Eibar ilustratzalearen *Barrukoa* (Edo) lan intimista adibide.

Apituz albumak batik bat haurrek irakurtzen dituztela egia bada ere, arestian esan bezala, argitaletxe askok adinaren muga gainditzeko apustua egin dute azken urteotan eta publiko guztientzako egokiak izan litzkeen obrak kaleratu; Leire Salaberriaren *Hiltzaileak* (Pamiela), Joxan Ormazabal eta Iraia Okinaren *Ilargia esnada* (Elkar) eta Uxue Alberdi eta Maite Gurrutxagaren *Besarkada* (Elkar) kasu. Era berean, geroz eta gehiago dira mota honetako liburuak adinaren arabera sailkatzeari laga beharra dagoela dioten adituak.

Bada oraindik aurreiritsi hedatu bat, zeinaren arabera, jende askok testu eta irudi asko dituzten liburuak

umeentzakotzat hartzen baititu automatikoki. Halaber, egia da liburutegietan eta liburu-dendetan haurren txokoan soilik egoteak irakurle posible ugari urrunten dituela albumetatik. Euskal Herrian ere ez da era honetako literatura kontsumitzeko ohiturarik egon oraintsu arte eta euskarazko publikazioen artean, gehiago izan dira itzulpenak bertoko sortzaileek eginiko lanak baino. Ordea, album ilustratuak, kode artistiko desberdin bat ez eze, irakurtzeko modu berri bat eskain diezaiokе hartzale gazte zein helduari; eskuartean dituen testu eta irudietatik abiatuta, buruan, bihotzean, sabelean daramatzan emozioez hausnartzeko bidea zabalduko diona.

...eta biloba da orain, albumak eskutan, amonari ipuinak kontatzen dizkiona.

MIREN AMURIZA
Bertsolaria eta idazlea

ELKAR LIBURU-DENDEK ETA DEBOLSILLO-K URRUN IRITS ZAITEZEN NAHI DUTE!

Erosi **DEBOLSILLO**-ko liburu bat, eta bi pertsonentzako hiru globo-hegaldien zozketan parte hartuko duzu. Euskal Herria zerutik ezagutu nahi?*

ILAS LIBRERÍAS ELKAR Y DEBOLSILLO QUIEREN QUE LLEGUES LEJOS!

Por la compra de 1 libro **DEBOLSILLO** participa en el sorteo de 3 viajes en globo por Euskal Herria para dos personas.**

DEBOLSILLO

Penguin
Random House
Grupo Editorial


ekar



*Avalosetas politikoei hiru globo-gehaldien zozketan parte hartzen du. <http://www.elkarliburu-dendek.com>

**Ganadorei hiru lehengaiak ematen zaizkio. <http://www.libreriaselkar.com>

Egin IRRIaren HARPIDETZA... eta jaso gure MANTA POLARRA!



IRRIA ALDIZKARIAREKIN:

- ✓ Haurren irakurzaletasuna sustatu eta balioetan hezi
- ✓ Babestu Irrien Lagunak Kluba egitasmoa
- Hilabetekaria, urtean 10 zenbaki, etxean
- 44 orrialde, komiki eta denborapasekin!
- Jaso klubeko bazkide txartela

**45€
urtean!**

NON EGIN HARPIDETZA?

1. Elkar dendetan
2. Katxiporretaren Ikuskizunetan
3. 902820806ra deituz
4. www.irrienlagunak.eus/harpidetza orian






Orrialde hauetan **Jakin**en lankidetza aurkituko du irakurleak. Lehena da, ez azkena.

Artikulu honekin lankidetza berri bati eman nahi diogu hasiera. Aurrerantzean **Jakin**ek aldizkariaren orriean aldian aldian esku hartuko du gure irakurlearen intereseko gaiak landuz. Oraingo honetan **Jakin** aldizkariak argitaratu berri duen 2015eko euskal liburugintzaz **Joan Mari Torrealdaik** egindako azterketaren laburpena jaso da. **Jakin**ek eduki interesgarria landu du eta **elkar**-ek oihartzuna eman dio, zabaunde handiago izan dezan.


Euskal liburu produkzioa %8 hazi da eta 2008ko kopurua gailurrera hurbiltzen hasi

Ikasmaterialgintzak kanpoko argitaletxeen esku jarraitzen du, eta, beraz, haur eta gazteek ikasteko darabiltzaten material gehienek importaziookoak izaten segitzen dute.

Euskal liburu produkzioa %8 hazi da 2015ean; aurreko urtean baino 189 titulu gehiago argitaratu dira, eta kopuru horrekin, mende berriko daturik onenetakoak erdietsi du, 2008an gailurra jo eta ondoren netik. Krisiaren hasiera edo krisi gabeko bizitzaren azken urtetzetat hartzen den 2008. urtean 2.597 tituluk ikusi zuten argia, eta 2015ean 2.353k. Bi kopuruen aldea ez da ikaragarria eta, agian, esan liteke errekuperatzen hasi dela liburu produkzioa. Baino bi zifra horien atzean dagoena ez da berdin-berdina: liburu digitalaren proportzioa 2015eko datuan nabarmen handiagoa da, 623 unitatekoa, kopuru osoaren %26,5. 2008an, unitate digitalen kopurua 107koa izan zen. Beraz, bistan denez, aldea nabaria da: digitalak gora egin du, eta gorantz doa historikoak erakusten duenez. Liburu analogikoak ere gorantz egiten du urtez urte, baina alde txikiarekin, normala denez.



Berrargitalpenaren eskasia, diglosiaren adierazgarri




Eta normala denez, argitaratutako tituluen artean, nagusi nobedadeak dira, alegia, lehen edizioak, liburu berriak. Hori ohikoa da liburugintza normalizatua duten kultur sistematan, baina berrargitalpenaren kopuruak ere zeresan handia du sistema horren izaera normal edo a-normalean. Alegia, zer proportzio gordetzen den nobedade eta berrargitalpenen artean. Euskarazko liburuari dagokionean, lau titulutik hiru berriak dira eta bat berrargitalpena. Eta proportzio hori, urtea joan urtea etorri, horrela gordetzen da. Proportzio horrek euskal kultur sistemaren normaltasuna

edo jasangarritasuna adierazten al du? Bada, badirudi ezetz. Nobedade kopuruak engaina gaitzake, baina jaio orduko hiltzen den liburuak ez du kulturaren ekosistema luzarora aberasten. Horrenbestez, esan dezakegu diglosia islatzen dela, bereziki berrargitalpenak zein liburu motatan duen indarra eta zeinetan dabilen ahul begiratzen badugu.

Jaio orduko hiltzen den liburuak ez du kulturaren ekosistema luzarora aberasten

Begiratu dezagun, beraz, zenbat eta nola argitaratzen den alor bakoitzean. Produkzioa zortzi multzo tematikotan sailkatzen da: 1- hezkuntza eta irakaskuntza liburuak (**HI**); 2- haur eta gazteentzako liburuak (**HG**); 3- giza eta gizarte zientzietako liburuak (**GG**); 4- helduen literatura (**HL**); 5- zientzia eta teknika alorreko liburuak (**ZT**); 6- aisia liburuak (**AL**); 7- orotarikoak; eta 8- erlijiookoak. Alor bakoitzak zer leku duen adierazten du hurrengo grafikoak, eta ondorioa kolpean dator: hezkuntza eta irakaskuntza liburuen nagusitasuna, produkzio osoaren %42 dagokiola. Haur eta gazte liburuaren alorra dator bigarren, %24,8 hartzen duela. Gizarte zientzien alorreko liburuak eta helduen literaturarena pareko daude, % 12-13an.

Hezkuntza eta irakaskuntza alorretan argitaratzen da gehien eta haur eta gazte liburuen alorra dator bigarren



HI Hezkuntza / Irakaskuntza liburuak

Multzoz multzoko begirada botatzen hasita, har dezagun hezkuntza eta irakaskuntza liburuen alorra. Alor hau da -

urtero bezala, bestalde- produkzio osoan pisu handiena duena; 2015ean batez ere, 990 titulu eman baitira argitara, aurreko urtean baino 177 gehiago, modu nabarmenean gora eginez. Igoera horren arrazoi nagusia liburu digitala da, hiru liburutik bat digitala da; liburu digitalen horien %79 kasik kanpoko argitaletxeen eskutik plazaratu dira.

	2011	2012	2013	2014	2015
Titulu kopurua	742	740	566	713	990
Ekoizpenaren %	31,8	35,2	30,6	33	42
Itzulpenen %	18,8	22,1	25,1	10,6	13,6
Berrargitalpenen %	37,8	45,6	49,4	39,5	15,6

HG Haur eta gazteentzako literatura

Haur eta gazteentzako liburu kopuruak behera egin du. 2014an 605 izan ziren eta 2015ean 581 izan dira. Horrekin, ekoizpen osoarekiko pisua galdu du alor honek: %28tik 24,8ra jaitsi da. Edizio digitalak, berriz, ez du protagonismorik, %9. Obra itzulien kopuruak gora egin du, al-diz, eta %69 erdietsi du. Beti izan ohi da asko itzulitakoa. 2015ean ere bai, nahiz eta orain lau urte kasik hamar puntu gehiagokoa izan itzulpen kopurua ehunekotan.

	2011	2012	2013	2014	2015
Titulu kopurua	666	603	599	605	581
Ekoizpenaren %	28,5	28,7	32,4	27,9	24,8
Itzulpenen %	66,3	76,9	78,6	62,6	69
Berrargitalpenen %	39,3	33,8	35	28	24,2

GG Giza / Gizarte zientzietako liburuak

Giza eta gizarte zientzien alorrek ere behera egin du kopurutan: 358tik 307ra. Liburu mota honek gizarte esparru handia hartzen du, hasi filosofiatik eta geografia edo historiaraino, soziologia, etnologia edo hizkuntzalaritzatik berrrena. Hori guztia elikatzeko 300 tituluk ikusi du argia euskaraz. Horietatik %26 digitalak. Apenas dago berrargitalpenik, ia denak titulu berriak dira. Gure diglosia kulturauren seinale garbia da liburu mota honek ez duela egonkor-tasunik topatzen, beti da berri.

	2011	2012	2013	2014	2015
Titulu kopurua	383	280	244	358	307
Ekoizpenaren %	16,4	13,3	13,1	16,5	13
Itzulpenen %	17,3	27,4	20,7	23,7	28,4
Berrargitalpenen %	6,7	8,9	6,9	4,4	5,5

HL Helduen literatura

Helduen literatura ere 2014ko kopurura ezin iritsi geratu da. Gutxigatik, hori bai. 301 titulutik 283ra jaitsi da, 18 titulu gutxiago. Eta kopuru osoarekiko pisua ere galdu egin du %14tik %12ra, bi puntu. Horren baitan, digitalak indar hartu du, bai poesian eta bai narratiban, eta %38,1 iritsi du. Jakinak, narratibak du leku gehien, %62,2, eta oso atzetik da-

tor bigarren tokian poesia, %17,6rekin. Itzulprenaren pisua ohikoa da puntu bat gorabehera, %27,5. Ahulgunea, alor honetan ere, berrargitalpen kopuruak markatzen du: hamar liburutik ia zortzi ez dira berrargitalpen.

	2011	2012	2013	2014	2015
Titulu kopurua	308	279	254	301	283
Ekoizpenaren %	13,2	13,2	13,7	13,9	12
Itzulpenean %	23,7	23	25,5	29	27,5
Berrargitalpenen %	22	20,7	24,4	21,9	17,6

ZT Zientzia / Teknika liburuak

Azken urteetan beheranzko joera hartua zuen zientzia eta teknika alorreko liburuak. 2014tik hona, hori bai, hazi egin da titulu kopurua, baina ez orrialde kopurua, agian liburu mota honetan %42,7 delako liburu digitala. Itzulpeneak gora egin du, eta, aldiz, ia hutsaren hurrengoa da.

	2011	2012	2013	2014	2015
Titulu kopurua	131	115	79	85	103
Ekoizpenaren %	5,6	5,4	4,2	3,9	4,4
Itzulpenean %	17,2	20,7	19	22,8	36
Berrargitalpenen %	11,4	7,8	6,3	7	5,8

Bertakoak eta kanpokoak merkatu berean

Beraz, bertako eta kanpoko argitaletxeen produkzioaren alderaketak argazki zehatza eta esanguratsua ematen du. Editorialaren kokagune geografikoaren zabalerak eta nolaktasunak egiten du kanpoko eta bertakoentzako bereiztea. Alegia, argitaletxe batek zein duen bere eragin eremu geografikoa. Spainia osoa edo Frantzia osoa edo Euskal Herri osoa izatea, esate batera, argitaletxe denek hemen egoitza izanagatik, ez da gauza bera, horrek erabakigunea noren esku dagoen adierazten baitu. Eta horrek badu garrantzirik, horren arabera aldatzen baitira batzuek eta besteek gure ekosistema editorial eta kulturalean duten implikazioa, hezkuntza curriculumean duten eragina edota euskal edizio industrian suposatzen dutena. Hortexe dago gakoa.

